

BALOREZKO PROPOSAMENA INNOTEAM

Gaur egun gizartean nagusi den bizi estiloaren eraginez, gizakiak dauan gehiegizko pisua ikaragarri ugaltu da. Gurean %53 ko biztanleriak euren pisuaren gainetik daude eta are larriago umeen kasuan %12 ak gain pisua eta %14 ak obesitatearekin. Datu hauek etorkizunean handituko dirala kontuan hartuta, adituen ustez datozen 20 urteetan, gizentasunak diabetesak eragin litzake 6 eta 8.5 milioi kasu bitartean, gaixotasun kardiobaskularren 5.6 eta 7.3 milioi kasu bitartean, eta minbiziaren kasu berriko milioi erdi gehiago izango dira leku askotan Espainian barne, arazo honi konponbide bat bilatu deusagu.

Pertsonen pisu egokia eta osasuntsu egoteko beharrezkoa den ekintza fiskoa bultzatuko dauan gimnasio ezberdin bat bururatu zaigu. Ekintza fisikoa, modu egokiena eta efizienteena dela uste dugu. Gainera, pertsonak bertan kirola egitean sortutako energiaren baliatuko gara beste motatako energia batzuk sortzeko.

Gimnasioaren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Kardioko makinak izango dira: spinning-go makinak, eliptika eta zinta. Makina horrek berezitasun bat dabe, eta bada, pertsonak eragindako energia, energia berriztagarrian bihurtuko dauzala.
- Kardio makina hauek, Bilboko leku publikoetan ezarri gura doguz: metro geltoki, Termibus, aireportu eta antzeko guneetan. Pertsonak garraioa publikoaren zain dauden bitartean, zain dauden denbora hori jesarrita edo mugikorrarekin egon beharrean, minutu horiek kirola egiten eman ditzateke.
- Makina bakoitzak, bezeroak edukiko duen smart edo kode baten bidez, bezeroaren datu pertsonalak kontuan hartuta (adina, pisua...) egin beharreko kirola eta esfortzuaren inguruko informazioa emango zuen.
- Bezeroaren energia, energia berriztagarrian bihurtuko da. Energi hori bezeroaren gailu elektronikoak kargatu ahal izateko, zein geltokiko igogailu, eskailera mekanikoaren funtzionamendurako erabili ahalko da.

Gure gimnasio mobil honen bitartez, pertsonak motibatu ahalko doguzala kirola egitera eta aldi berean onura sortuko dogula ingurunean uste dogu.

Gure ideia ondo ulertzeko argazkiak:

1. ARGAZKIA: Gimnasio mobila nola egongo litzateke kokatuta.
2. ARGAZKIA: Zelan ikusiko zen makinaren pantaila, *Smart* txartela erabilia.

